

GOBERNU BATZARRA

2015. 09. 28

Alkatea:

Olatz Peón Ormazabal

Zinegotziak:

**Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Beloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar**

Beh. Beh. Idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea

Beh. Beh. Kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko irailaren hogeita zortzian goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-Hirigintza eta azpiegitura eta Ingurumena Auzo, Obra eta Zerbitzuetako batzordearen gai banaketa.

3.-Tolosaldea Mankomunitateko uztaila eta abuztuko aportazioak onartu.

4.-“Compact of Mayors” ekimenarekin bat egitea.

5.- Merkataritza Ostalaritza Turismoa eta Feriak dinamizatzeko esleipena.

6.-Tolosako Hiri antolamenduko Plan Orokorraren “15.1 Tolosana-Igerondo” azpiesparruko xehetasun azterlanaren aldaketa/ Modificación del Estudio D3E detalle del subambito “15.1 Tolosana-Igerondo” del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa.

7.-Tolosako Hiri antolamenduko Plan Orokorraren “15.1 Tolosana-Igerondo” azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa programaren aldaketa/ Modificación del Programa de actuación urbanizadora del

subámbito “15.1 Tolosana-Igerondo” del Plan General de Ordenación Urbana.

8.-“21 Araxes Paper-Fabrika” esparruko Plan Berezia/ Plan Especial del ambito “21 Papelera Araxes”.

9.- Musika Eskolako ikasleen bajak.

10.-27/2015 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko irailaren 21ean egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Hirigintza eta azpiegitura eta Ingurumena Auzo, Obra eta Zerbitzuetako batzordearen gai banaketa.

Aztertu da “Ingurumena, Auzoak, Obrak eta Zerbitzuak” eta “Hirigintza eta azpiegiturak” batzordeetan aztertuko diren gaien buruzko proposamena.

Gobernu Batzarrak, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta, aurkeztutako proposamena onartu du. Aipatutako proposamena espedientean jasotzen da.

3.- Tolosaldea Mankomunitateko uztaila eta abuztuko aportazioak onartu.

Tolosaldeko Mankomunitatean 3 sistema desberdinen bidez egiten da hondakinen bilketa: atez-atekoa, landa eremuko eta edukiontzien bitartez egiten dena. Sistema bakoitzak ingurumenarekiko eragin desberdinak ditu eta sistema bakoitzaren kostuak eta diru sarrerak (bilketa, garraioa eta tratamendua) desberdinak dira. Hori dela-eta, formula bat garatu da Mankomunitatearen baitan herri bakoitzak egin beharreko ekarpenak modu orekatu eta justuan banatzeko.

Horrela, bi zatitan banatzen da udal bakoitzak egin beharreko ekarpena:

* **Gastu finkoa:** Hondakinen bilketa sistema bakoitzari dagokiona eta mankomunitatearen gastu estrukturaleri dagokiena.

***Gastu aldakorra:** Hondakinen tratamenduari dagokiona, material birziklagarrien diru-sarrerak kontuan hartuta.

Hori guztia kontuan izanik, Tolosaldeko Mankomunitateak 2015ko abuztuaren 31n eta 2015eko irailaren 14 datako bi fakturak aurkeztu ditu. Uztaila eta abuztuko kuota dagokion gastu finkoa eta aldakorrarekin eta aldakorraren kontzeptu barruan dauden puntu berdea eta birziklagarrien sarrerekin.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosaldeko Mankomunitateak aurkeztutako bi faktura hauek:

Fra. 2015/08/31114.987,09 € (uztailari dagokiona).

Fra. 2015/09/14116.215,92 € (abuztuari dagokiona).

Kopuru osoa: 231.203,01€.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Ingurumena departamentuari eta Tolosaldea Mankomunitateari.

4.- “Compact of Mayors” ekimenarekin bat egitea.

Klimaren aldeko toki-ekintzen alde nazioartean piztutako interesa dela eta, **Nazio Batuek Compact of Mayors** ekimena aurkeztu zuten 2014an.

Compact of Mayors ekimenaren helburua tokiko gobernuek klima-aldaketa arintzeko eta haren ondorioetara egokitzeko konpromiso boluntarioak hartzea, aurrerapenen berri ematea eta helburu horiek zorrotz betetzea da, baita plataforma ezagun eta onetsien bidez informazio hori publikoari eskuragarri jartzea ere, esperientzien trukea errazteko.

Tolosak ibilbide luzea izan du gai hauen inguruan, eta horien artean daude esate baterako: tokiko agenda 21aren barruan klima aldaketaren kontrako ekintzak, klimaren aldaketari buruzko ordenantza, energiari buruzko ekintza plana (PAESa), Berotegi efektuko gasen inbentarioaren urteko kalkuluak...

Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen Udalsarea 21ek (EAE-ko udalerrri jasangarrien sarea) 10 udalerrri Compact of Mayors ekimenarekin bat egitera gonbidatu ditu, klima-aldaketaren arloan izan duten ibilbideagatik eta esperientzia arrakastatsuegatik. Udalerrriak hauek dira:

- Araba: Amurrio eta Gasteiz
- Bizkaia: Areatza, Balmaseda, Bilbo eta Durango
- Gipuzkoa: Donostia, Legazpi, Tolosa eta Errenteria

Compact of Mayors ekimenarekin bat egiteko, atxikimendu gutun bat sinatu behar da. Gutun honetan udalari konpromiso orokor bat eskatzen zaio eta beste konpromiso zehatzago batzuk. Hauek dira:

Orokorrak: Udalerriek berotegi-efektuko gasak isurtzen dituzten arloetan; hiri planeamenduan, mugikortasunean, energian, hondakinen kudeaketan eta biodibertsitatean, klima-aldaketa arintzeko eta haren ondorioetara egokitzeko konpromiso boluntarioak hartzea eta hauen aurrerapenaren berri ematea.

Zehatzak: ondorengo txostenak egin eta publikatzea:

1. Udalerriko urteko negutegi efektuko gasen inbentarioa, urtebeteko epean.
2. Gure udalerririk aurrez aurre dituen arrisku klimatikoak, urtebeteko epean.
3. Berotegi efektuko gasen isurketa gutxitzeko gure helburua, bi urteko epean.
4. Gure udalerririk aurrez aurre dituen urrakortasun klimatikoak, bi urteko epean.
5. Klima-aldaketa arintzeari aurre egiteko ditugun planak eta horien egokitzapena, hiru urteko epean.

Hauetako eskakizun batzuk ingurumen saileko ohiko lanetan txertatuak daude eta burutu gabe dauden txostenak, Udalsarearen laguntza teknikoarekin lantzen.

Ekimen honi atxikimendua agertzeak konpromiso politiko bat adierazten du eta ez du kostu ekonomikorik aurreikusten. Neurrien gauzatzea, egoera ekonomikoa eta lortuko diren dirulaguntzen menpe egongo da.

Hau guztia ikusirik, Gobernu Batzar honek, Ingurumen Teknikariak egin duen txostenarekin bat etorriz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **COMPACT OF MAYORS** ekimenarekin bat egitea eta alkateak udalaren izenean atxikipen gutuna sinatzea.

BIGARRENA.- Erabakiaren berri ematea Ingurumen sailari eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Departamentuari.

5.- Merkataritza Ostalaritza Turismoa eta Feriak dinamizatzeko esleipena.

2015eko abuztuaren 25ean, Alkatetza Dekretuaren bitartez Tolosako Merkataritza, Ostalaritza, Turismoa eta Feriak dinamizatzeko zerbitzua kontratatzeko klausula administratiboan agiria eta espedientea onartu ziren.

Gonbidapena enpresa hauei luzatu zitzaien:

INFOTRES, S.L.

PROSPEKTIKER, S.A.

OPE CONSULTORES, S.L.

Prozedura horretan parte hartzeko, enpresa hauek aurkeztu dute proposamena:

INFOFRES, S.L.

PROSPEKTIKER, S.A.

(Ope consultores,S.L, enpresak uko egin dio prozeduran parte hartzeari)

Txosten teknikoen arabera Prospektiker, S.A., enpresak aurkeztutako proposamena izan da egokiena. Izan ere, nahiz eta Prospektiker, S.A., enpresak prezio garestiago eskaintzen duen, memoria teknikoa landuagoa aurkeztu du;horrela, Infotres, S.L. enpresak aurkeztutako eskaintzak nahiz eta proposamen estrategiko eta metodolokioaren barruan agertu behar diren aldagai nagusiak (diagnostikoa, helburuak, ekintzak, baliabideak, ebaluazioa) ageritzat hartzen dituen, haien deskribapena orokorregia da. (Atal ebaluazioari dagokionez, segimenduko eta emaitzen kontroleko prozedura ez da zehazten;ezta helburu-lorpenarena eta inpaktuarena ere ez) eta Turismo eremura (erreferentzia espezifikorik gabekoa) ez da egokitzen; ezta informazio adierazgarriker ere ez dago proposamen estrategikoa balioesteko, seinalatutako komunikazioa eta zeharkakotasuna izan ezik. Horregatik, aurkeztutako proposamen estrategiko eta metodologikoa nabarmen gutxiegia da.

Prospektiker S.L, enpresak aurkeztutako proposamena aurrekoa baino deskribatzailea da:

- * Ekintza guztien xedea eta helburua erakusten du: ongizate ekonomiko ea herritarren ongizatea.
- * Bilerak dinamizatzeko sormen-teknika bat jasotzen du.
- * INFOTRESen proposamenarekin alderatuz, zeharkakotasun kontzeptua gehiago garatzen du.
- * Turismo alorrean, eskaintzen den zerbitzuaren edukiak argitu ditzakeen ekintza zehatza jasotzen du.Turismo aterpetxe baten erreferentziak egiten ditu.

Gainera, merkataritza arloan, Infotres, S.L., enpresak aurkeztutako proposamenak ez du batere zehaztu eta sakondu bere proposamena. Prospektikerrek, berriz, Perco ikerketak finkatutakoaren arabera oinarritu du bere proposamena aurkezterakoan eta jorratu beharrekoa ere gehiago landu du.

Bestalde, Prospektikerrek kontratuaren xedearekin lotutako esperientzia profesional gehiagori buruzko informazioa aurkeztu du. Giza baliabideetako teknikariak irailaren 22an egindako txostenaren arabera Prospektiker enpresaren eskaintza Giza baliabideen arloari dagokionez, gehiago egokitzen da baldintza pleguetan ezarritako eskakizunei.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ER A B A K I D U

LEHENA.- Kontratazio prozedura baliozkotzat jotzea eta Prospektiker, S.A., enpresari adjudikatzea Tolosako Merkataritza, Ostalaritza, Turismoa eta Feriak dinamizatzeko zerbitzua garatzeko kontratua, hurrengo era honetan:

Prezioa: 59.504 + 12.495,84 BEZa = 71.999,84€ guztira.

Epea: Urtebetekoa izango da adjudikazio kontratua formalizatzen denetik.

BIGARRENA.- Aurkeztu diren lizitzaileei, adjudikazioa jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Kontratua formalizatzeko data hau finkatzea: 2015eko urriaren 6a.

LAUGARRENA.- Kontratuaren formalizazioa profilean argitaratzea adjudikatzen denetik berrogeita zortzi eguneko epearen barruan.

6.-Tolosako Hiri antolamenduko Plan Orokorren "15.1 Tolosana-Igerondo" azpiesparruko xehetasun azterlanaren aldaketa/ Modificación del Estudio de detalle del subámbito "15.1 Tolosana-Igerondo" del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa.

Alkatetzak, 2015eko uztailaren 20ko 2015/1227 dekretuaren bitartez, hasierako onspena eman zion "15.1 Tolosana-Igerondo" azpiesparruko Xehetasun Azterlanaren aldaketari, ondoren zehazten den baldintzarekin: Ordenazio xehetua eguneratu beharko da hirigintza Hitzarmenaren hirugarren eranskinak aurreikusitako lokal komertziala emateko obligazioa bete denez.

Espedientea 20 egunez egon da jendaurrean, eta epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

2015eko irailaren 14an BISTA ALAI, S.A. enpresak 6. plano aldatua aurkeztu du, hasierako onspenean ezarritako baldintzara egokitua.

Ikusita udal arkitektoak jaulki duen txostena, eta ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 98. artikuluan xedatzen

La Alcaldía, por Decreto 2015/1227, de 20 de julio, aprobó inicialmente la Modificación del Estudio de Detalle del subámbito "15.1 Tolosana-Igerondo", con la condición de actualizarse la ordenación pormenorizada, dado que ya se dió cumplimiento a la obligación de cesión de local comercial establecida en el Anexo Tercero del Convenio Urbanístico.

El expediente ha estado en información pública durante 20 días, sin que se hayan presentado alegaciones.

Con fecha 14 de septiembre de 2015, BISTA ALAI, SA, ha presentado el plano 6 corregido, adaptado a la condición impuesta.

Visto el informe emitido por el arquitecto municipal, y de conformidad con lo establecido por el artículo 98 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y

duenaren arabera, eta Hirigintza batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorritz,

Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Behin betiko onespena ematea Jose Mari Aseginolaza arkitektoak, 2015eko martxoan sinatutako, "15.1 Tolosana-Igerondo" azpiesparruko Xehetasun Azterlanaren Aldaketari, 6. planoan izan ezik. Hau, 2015eko irailean sinatutako planoaz ordezkutzen da.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri, Hirigintza departamentuari eta intereatuari jakinaraztea.

Urbanismo, y de conformidad con el dictamen emitido por parte de la Comisión informativa de Urbanismo,

La Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Aprobar definitivamente la Modificación del Estudio de Detalle del subámbito "15.1 Tolosana-Igerondo", suscrito por el Arquitecto Jose Maria Aseginolaza en marzo de 2015, excepto el plano 6 que queda sustituido por el de fecha de septiembre de 2015.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Urbanismo y a la parte interesada.

7.-Tolosako Hiri antolamenduko Plan Orokorren "15.1 Tolosana-Igerondo" azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa programaren aldaketa/ Modificación del Programa de actuación urbanizadora del subambito "15.1 Tolosana-Igerondo" del Plan General de Ordenación Urbana.

Alkateak, 2015eko uztailaren 21eko 2015/1235 dekretuaren bitartez, hasierako onespena eman zion "15.1 Tolosana-Igerondo" azpiesparruko Urbanizatzeko Jarduketa Programaren aldaketari, ondoren zehazten diren baldintzarekin.

- Xehetasun azterlanaren ordenazio xehetua eguneratu beharko da Hirigintza Hitzarmenaren Hirugarren Eranskinak aurreikusitako lokal komertziala emateko obligazioa bete zenez.
- Eraikuntzaren eta urbanizazioaren lehen fasearen lehen erabilerako lizentzia eskatzeko unean bigarren fasea eraikitzen hasi gabe balego, aipatutako lizentzia lortzeko azpiesparruaren urbanizazioa bere osotasunean gauzatu beharko da eta mehelina forratu.

La Alcaldía, por Decreto 2015/1227, de 20 de julio, aprobó inicialmente la Modificación del Estudio de Detalle del subámbito "15.1 Tolosana-Igerondo", con las siguientes condiciones:

- Deberá actualizarse la ordenación pormenorizada del Estudio de Detalle, dado que ya se dió cumplimiento a la obligación de cesión de local comercial establecida en el Anexo Tercero del Convenio Urbanístico.
- Caso de que en el momento de solicitud de la licencia de primera utilización de la primera fase de edificación y urbanización no se haya dado inicio a la ejecución de la segunda fase de edificación, para obtener dicha licencia deberá ejecutarse la totalidad de las obras de urbanización del subámbito y deberá forrarse la medianera.

Espedientea 20 egunez egon da jendaurrean, eta epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

2015eko irailaren 14ean BISTA ALAI, SA enpresak 6. plano aldatua aurkeztu du, hasierako onespenean ezarritako baldintzara egokitua.

Horiek horrela, ikusirik, ekainaren 30eko 2/2006 legeko 156 artikulua xedaturikoaz bat, eta Hirigintza Batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-Behin betiko onespena ematea "15.1 Tolosana-Igerondo" azpiesparruko Urbanizatze Jarduketa Programaren Aldaketari, ondorengo baldintzarekin:

- Eraikuntzaren eta urbanizazioaren lehen fasearen lehen erabilerako lizentzia eskatzeko unean bigarren fasea eraikitzen hasi gabe balego, aipatutako lizentzia lortzeko azpiesparruaren urbanizazioa bere osotasunean gauzatu beharko da eta mehelina forratu.

BIGARRENA.-Urbanizatze Jarduketa-Programaren behin betiko onespenera buruzko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta, horrekin batera, baita edukien laburpen bat ere, laburpenean jaso beharreko puntuak ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 156.5 artikuluan zehazten direnak izango direlarik.

HIRUGARRENA.-Erabakia Hirigintza departamentuari eta interesatuari jakinaraztea.

El expediente ha estado en información pública durante 20 días, sin que se hayan presentado alegaciones.

Con fecha 14 de septiembre de 2015, BISTA ALAI, SA ha presentado el plano 6 corregido, adaptado a la condición impuesta.

Ante todo lo expuesto, de conformidad con lo dispuesto en el art. 156 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, así como con el dictamen de la Comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.-Aprobar definitivamente la Modificación del Programa de Actuación Urbanizadora del subámbito "15.1 Tolosana-Igerondo", con la siguiente condición:

- Caso de que en el momento de solicitud de la licencia de primera utilización de la primera fase de edificación y urbanización no se haya dado inicio a la ejecución de la segunda fase de edificación, para obtener dicha licencia deberá ejecutarse la totalidad de las obras de urbanización del subámbito y deberá forrarse la medianera.

SEGUNDO.-El acuerdo de la aprobación definitiva del Programa de Actuación Urbanizadora se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa así como un resumen de su contenido. Los puntos a recoger en dicho resumen vienen determinados en el artículo 156.5 de la Ley 2/2006 de Suelo, de 30 de junio.

TERCERO.-Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Urbanismo y a los interesados.

8.-“21 Araxes Paper-Fabrika” esparruko Plan Berezia/ Plan Especial del ambito “21 Papelera Araxes”.

Dokumentua: Hiri Ordenazioko Plan Berezia.

Esparrua: “21 Araxes Paper-fabrika”.
Planaren data: 2015eko otsaila.
Egilea: Fernando Carazo Amundarain.
Sustatzailea: SOLARPAP, SA

Ikusita dokumentuari buruz udal arkitektoak idatzi duen txostena eta Hirigintza Batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

Plan Bereziaren hasierako onespena ezestea, ondorengo arrazoiak medio:

LEHENA.- URAREN txostenaren arabera, 2 eraikineko sotoa egitea ezin da baimendu, sarrerako kota Q500-en azpitik baitago.

BIGARRENA.- Finkatutako eraikina (mendebaldeko zona) urak har dezakeela-eta, eraikin horretan hartu behar diren neurriei buruz URAK esan duenera jotzen da.

HIRUGARRENA.- Plano bat aurkeztu behar da, honakoak jasoko dituena: Jabetza Publiko Hidraulikoa eta urak har ditzakeen zonak (sektoreko araudiaren arabera), ordenazio berria eta sotoetako sarbideen kotak.

LAUGARRENA.- Berriko kalkulatu behar dira hirigintza-estandarrik, baina eremuaren arabera eta ez exekuzio-unitatearen arabera. Aparkalekuen gaia konpondu behar da (aparkaleku publikoak eta pribatuak).

Documento. Plan Especial de Ordenación Urbana.

Ambito: “21 Papelera Araxes”

Fecha del Plan: Febrero de 2015.

Autor: Fernando Carazo Amundarain.

Promotora: SOLARPAP, S.A.

Visto el informe emitido por la arquitecta municipal respecto del Plan así como el dictamen de la Comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad, y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

Denegar la aprobación inicial del Plan en base a las siguientes consideraciones:

PRIMERA.- Según el informe de URA, la construcción del sótano del edificio 2 no sería autorizable puesto que la cota de entrada se encuentra por debajo de la Q500.

SEGUNDA.- Con respecto al riesgo de inundabilidad del edificio consolidado (zona oeste), se remite a lo que diga URA sobre las medidas a adoptar en dicho edificio.

TERCERA.- Se deberá presentar un plano en el que se represente el Dominio Público hidráulico y las zonas inundables (de acuerdo a la normativa sectorial) junto con la nueva ordenación, así como las cotas de acceso a los sótanos.

CUARTA.- Se deberán recalcular los estándares urbanísticos en función del área y no de la unidad de ejecución. Se deberá resolver el tema de los aparcamientos (públicos y privados).

BOSGARRENA.- Plano bat aurkeztu behar da, GKLren muga proposatzen den ordenazioaren gainean jarrita duela. Baldin eta eraikin berriek GKL hartzen badute, Plan Bereziak ingurumen-ebaluazio estrategikoa-ren prozedura bete beharko du.

SEIGARRENA.- N07 planoan (zonifikatze xehatua) definitu behar da kontsolidatzen diren partzelen ordenazio xehatua.

ZAZPIGARRENA.- I07 planoan (dauden eraikinen katalogazioa) ordenaziotik kanpo dauden elementuak agertzen dira. Jaso behar dira, era berean, finkatutako eraikinean ordenaziotik kanpo dauden bi eranskinak. Gainera, baloratu beharko da kentzea autobusen markesina (egoera txarrean) eta finkatutako eraikinaren inguruan definitu gabe dauden beste elementu batzuk.

ZORTZIGARRENA.- Kokapen planoetan aztertu eta definitu behar dira autobusen geralekuak, izan ere, ez dirudi egokia denik geralekua biribilgunearen ondoan uztea. Aldundiaren baimena behar da.

BEDERATZIGARRENA.-Hiri-instalazioen planoei dagokienez, aurreikusi behar dira finkatutako partzelako harguneak.

HAMARGARRENA.-Azterketa ekonomiko berria aurkeztu behar da, modu errealean aztertuta jarduketaren bideragarritasuna (sarrerak-gastuak). Urbanizazio-kargetan, banakatuta jaso behar da benetako kostua: biribilgunea, lurzoru kontaminatuak...

HAMAIKAGARRENA.-Finkatutako zona-ren arau partikularra. Barne partzelaziorako baldintzak.

QUINTA.- Se deberá presentar un plano en el que se superponga el límite del LIC con la ordenación propuesta. En el caso de que los nuevos edificios invadan el LIC, el Plan Especial se deberá someter al procedimiento de evaluación ambiental estratégica.

SEXTA.- En el plano N07 (zonificación pormemorizada) se deberá definir la ordenación pormemorizada de las parcelas que se consolidan.

SEPTIMA.- En el plano I07 (catalogación de edificios existentes) aparecen los elementos fuera de ordenación. Se deberán representar también los dos anexos fuera de ordenación del edificio consolidado. Además, también habrá que valorar la desaparición de la marquesina de autobuses (en mal estado), así como otros elementos alrededor del edificio consolidado que se encuentran sin definir.

OCTAVA.- Se deberá estudiar y definir en planos la ubicación de las paradas de autobús, puesto que no parece adecuado mantener la parada junto a la rotonda. Se deberá contar con la autorización de Diputación.

NOVENA.- En cuanto a los planos de instalaciones urbanas, se deberán prever las acometidas a la parcela consolidada.

DECIMA.- Se deberá entregar un nuevo estudio económico en el que se analice de manera real la viabilidad de la actuación (ingresos – gastos). En las cargas de urbanización deberá aparecer desglosado el coste real de la rotonda, suelos contaminados, etc...

UNDECIMA.- Norma particular de la zona consolidada. Condiciones para la parcelación interior.

9.- Musika Eskolako ikasleen bajak.

Ikusiz ordaindutako matrikularen itzulpena eskatu dutela udal Musika Eskolako ikasle batzuk ikasturtea hasi aurretik, eta kontuan izanik alde batetik, Musika Eskolako zuzendariak eginiko txostenak kasu bakoitzean, eta bestetik, eskatutakoa bat datorrela ordenantza Fiskalek diotenarekin, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea ondoren aipatzen diren itzulpenak:

*** G.S.D.**

Orain arte ordaindutakoa: 217,20 €

Ikasturte osoaren %20a kenduta dagokion itzulpena: 144,80 €

(Baja ematea 2. eta 3. kuotei: 72,40€ eta 72,40 € hurrenez hurren).

*** M.A.Z.**

Orain arte ordaindutakoa: 325,80 €

Ikasturte osoaren %20a kenduta dagokion itzulpena: 217,20 €

(Baja ematea 2. eta 3. kuotei; 108,60 € eta 108,60 €, hurrenez hurren).

*** C.G.E.**

Orain arte ordaindutakoa: 217,20 €

Ikasturte osoaren %20a kenduta dagokion itzulpena: 144,80 €

(Baja ematea 2. eta 3. kuotei: 72,40 € eta 72,40 € hurrenez hurren).

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kultura departamentuari eta interesatuei.

10- 27/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.

Kontuhartzaitzarak 27/2015 faktura zerrenda aurkeztu du; **52.715,94** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 27/2015 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatzen da:

Tolosako Elozegi parkea birgaitzeko (I eta II fasea) proiektua eta dagozkion lizitazio pleguak onartzea.

Kontratazio-proposamena, eta gaiarekin lotutako gainontzeko dokumentazioa ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako Elozegi parkea birgaitzeko proiektua, Manuel Jimenez eta Ibon Rosales arkitektoak 2014ko irailean idatzia.

BIGARRENA.- Espedientea onartzea Tolosa Elozegi parkea birgaitzeko proiektuan jasotako obrak kontratatzeko (I eta II fasea).

Prezio zehatz hori honelaxe dago banatuta: batetik, 200.500,97 euroko balio estimatua; eta bestetik, Balio Erantsiaren gaineko zergari dagozkion 42.105,21 euro.

HIRUGARRENA.- 242.606,18 euroko (BEZa barne) gastua baliatzea 2015. urteari dagokion partidaren kargura.

LAUGARRENA.- Onartzea klausula administratibo partikularren plegua, aipameneko obrak kontratatzeko.

BOSGARRENA.- Ajudikatzeko prozedurari hasiera ematea eta, horretarako, lizitazioaren deia egitea Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta Kontratatzailearen profilean.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

Beh. Beh. IDAZKARIA